



Aurkituko zaitut

Teresa Calo

Euskaratzailea: Mitxel Murua

Bilduma: Erria txikota! (12 urtetik gora)

Generoa: eleberria

SALNEURRIA (BEZ bame): 11,50 €

ISBN: 978-84-9868-705-7

Formatua: 13,50 x 21,50 cm.

Orrialdeak: 128

Koadernaketa: paperezko azala

ARGITALPEN DATA: 2021eko azaroaren 22a

Prentsa aurkezpena: 2021/12/01



Sinopsia

Eiderrek nota txarrak atera ditu eskolan. Amak zigorra jarri dio: udalekurik gabe, berarekin igaro beharko du uda Arabako herri txiki batean, han daukaten etxean. Herrian Blanca bizi da, Eiderren lagunik handiena. Neska arduratsua, ikasle ona eta lagun ezin hobe da. Uda horretan, ordea, arraro dago Blanca. Lagun guztiengandik iheska dabil, eta Eiderri ere ez dio kasurik egiten.

Eiderren amak, alaba aspertuta eta triste ikusita, Bilbon bizi diren ilobak, Julen eta Aitor, gonbidatu ditu herrira. Hiru gazteen artean Blancari benetan gertatzen zaiona argitu beharko dute: sare sozialetan morroi arraro bat ezagutu du, misteriotsua eta batere asmo garbirik ez duena. Morroi iluna sare sozialetan ezkututzen da, nor den agertu gabe, eta Blanca engainatua dauka. Adiskidetasunak zenbat balio duen deskubrituko dute Eiderrek eta Blancak, nahiz eta beti ez den erraza lagun bati laguntzea.

Egileaz

TERESA CALO. Aktorea, antzerkigilea, gidoilaria. Antzerkian hemeretzi urte zituela hasi zen Orain taldean, eta, besteak beste, *Mentiras*, *Entre líneas*, *Ay Manolo* (Serantes saria), *El día en que inventé tu nombre* (Donostia Hiria saria), *El hombre que sobrevivió a una mudanza*, *Marketing* (Teatro Breve Luis Barahona de Soto saria), *Carrera de obstáculos*, *Play Out* eta *La plancha o la vida* (Teatro Breve Café Bar Bilbao saria). *Jaun ta Jabe*, *Maité*, *Goenkale* eta beste hainbat telesailetan gidoilari aritu da. *La luz con el tiempo dentro* da zinema-gidoilari gisa egindako lanaren erakusgarri bat. Hogeita bost urte eman ditu aktoreak prestatzen, eta TAEren (Taller de Artes Escénicas) sortzailea da.